

Alberto Arce

«Israelgo armadak txikitzen duena geuk ordaintzen dugu»

Gazara sartu zen azken atzerritarren artean zegoen Alberto Arce iazko abenduan. Bertan zen Israelek Gazako okupazioa askietsi ez eta Berun Urtua operazioari ekin zionean: hilak, zaurituak, nazioarteak bidalitako hornigaien biltegiak zartatuak, ospitaleak errauts eta zirtzil... Gizateriaren kontrako krimenaren lekuko zuzen izan genuen Arce.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

2008ko abenduan Gazan egin zenuten "egonaldia" dugu abiapuntu.

2008an, abuztutik abendura bitarte, bost ontzik lortu zuten blokeoa hautsi eta Gazan sartzea. Abuztuan sartutako bi ontziak, 1967tik hona –berrogeita bat urtean– Gazan atrakatu zuten lehenengo ontzi atzerritarrak izan ziren.

Abenduan sartu zirenetan zinen zu.

Dignity izenekoan, azken sartu zen ontzian. 2008ko abenduaren 19ko egunsentian, Hamasen eta Israelen artean sei hilabeteko su-etena hautsi zen momentuan, hain zuzen. Ondoko bombardaketa egunetan, Free Gazakoak beste bi aldiz ere saiatu ziren sartzen, europar parlamentariak eta nazioarteko kazetariak –CNN-koak, besteak beste– eramanez, baina ez zuten lortu. Batean, israeldarrek aboratu egin zituzten; bestean, tirokatu.

Gazan itsasontzien sarrera galarazteko legimitaterik ba ote du Israelek?

Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, ez. Besterik da zertan den Nazioarteko Zuzenbidearen legimitatea gaur egun. Dena dela, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera –hartan oinarrituz erabaki baitugu guk Gazako egoe-

raren berri ematea, horixe delakoan nazio eta pertsona zibilizatuen izendatzaile komun minimoa–, Israelek ez du batere eskubiderik –eskubidea, berez, arau positibo eta kodifikatua den aldetik– Gazako Zerrendan jende eta ondasunen sarrera-irteerak kontrolatzeko. Egiten duenean, okupazio perimetrala izeneko gauzatzen ari da. Israelgo soldadurik ez dago Gazako Zerrendan. Zer dago, orduan? Lurreko, aireko, itsasoko eta, are, espazio irrati-elektroaren okupazioa.

Esaguzu zer gertatu zen 2009ko urtarrilean, iaz, duela bi urte eta aurrekoan gertatua ez zenik...

Aurretik gertatu ez zenik, ezer ez. Badakigu zer izan zen Berun Urtua izeneko operazioa: masakrea, 1.412 hildako, 6.000 zauritu, 70.000 etxe hondaturik... Berririk ez, 1988an okupazioa hasi zenetik Gazako bizilagunek bizi izan ez dutenik. Kantitatea aldatzen da, maila... baina prozesu historiko edota militarri dagokionean, Israelek Palestinan gauzatu duen okupazioaren azkenurreko atala baizik ez da. Azkenurreko atala diot, zeren eta "su artifizialak" amaitzen direnean, biztanleen egoera askoz okerragoa da bombardaketa aurrekoa



Nortasun agiria

Alberto Arce (Gijon, Espainia, 1976). Zientzia Politikoak ikasia, Santiagon (Galizia), Suedian eta Argentinan. Nazioarteko Harremanak du espezialitatea, Zuzenbide Kontsularra, Zuzenbide Diplomatikoa eta beste. 2004tik hona komunikazioa eta aktibismoa nahastean ari da, lanean. Komunikazioak aktibismoa finantzatzen dio. Komunikatu ere, aktibismoa komunikatzen du. *Mapatik ezabatuak* eta *Elefanteari tiroka (kamera eskuan)* ditu joan den abendu-urtarrilean Gazako Zerrendan bildutako irudiekin egindako filmak. Bridatztat du bere burua.

baino. Eta, bombardaketen ondoren, hango milioi eta erdi lagunengana egoera bombardaketa garaian baino okerragoa da. Bizi-kalitatea beherantz ari da, hori bizi-kalitatea baldin bada, behintzat, eta ez biziraute fisiko hutsa.

Hitz egidazu 2009ko urtarrilaz.

... 1948an, duela 60 urte, Israelen bere estatua sortu zuen alde bakarreko erabaki bidez gaur egun okupatzen dituen lurretan eta, horretarako, 521 herrixka suntsitu eta 700.000 palestinar lekualdatu zituen. Gazako biztanleriaren %70, gaur gaurkoz, duela 60 urte indar militarrez lekualdatu zituzten haiek eta haien oinordeak

dira. Lehenengo krimena, beraz, 2009ko urtarilekoa, krimen jarraitua da, 1948ko maiatzean gauzatzen hasi zen haren jarraipena. Krimenak badu izena: "Biztanleriaren lekualdatze masiboa indarrez egina". Biztanleria lekualdatutako hori, itxi egin zuten gero, fisikoki. Ondoren, nortasun agiriak eman zizkieten: Gazakoek kolore berdeko nortasun agiria dute eta ghettoetik kanpokoek, berriz, urdina. Horretaz ari gara. 2006an, hornigaiaren sarrera galarazten hasi zen Israel, era guztietako hornigaiena, ordea: eraikuntza materiala, papera, liburuak, elektrizitatea, ura, ordezko piezak, sendagaiak... Horrekin batera, jendearen hara-hona



librea ere galarazi zuen. 2007an, blokeoa absolutua egin zen, erabatekoa; NBEren errefuxiatuen aldeko batzordekoek beste inork ez dute sarrera bertan. Behar dutenaren %20 baino ez diete sartzen uzten. Eta 2009ko urtarrilean, edota 2008ko abenduaren 27an, aurreko horri sarraski masiboa helburu duen kanpaina gehitu zioten, aire eraso bidez.

Azken sarraski horren lekuko zuzena izan zinen.

Lekuko zuzena, bai... Iazko abenduaren 27an Israeliek abiarazi zuen aire erasoak eragin zuen sarraski masiboa ez zen nolanhikoa izan: 360 pertsona hil zituzten 7 minutuan. Abenduak 27, goizeko 10.45ak. Bizian ahaztuko ez dudan eguna. Baina ni hilaren 19an sartua nintzen Gazan, eta hilaren 19tik 27ra krimenaren lekuko izan nintzen, ez zegoen eta argirik, ez urik, ez janaririk... Medikuek esan ziguten haurren malnutrizio eta anemia mailak Afrikako umeen parekoak zirela. Afrikarrak. Alde bat baino ez: Gaza, Palestina, ez da herrialde azpigaratua, ezin esan da han inoiz bizitza duina egiteko baldintzarik izan ez denik. Horixe da Afrikaren kasua: behin ere ez da izan aukerarik, eta gaur egun ere ez. Gazan bestela dira kontuak. Hangoa inboluzio adibidea da, baina ez hondamendi naturala gertatu delako –tsunami bat, uholdeak, esaterako– ez. Lider politiko batzuen erabaki

Suntsitu ez, ezabatu

“Dokumentalaren bertsio laburrak Mapatik ezabatuko du izenburu. Israeliek dio Hamas mapatik ezabatuko duela. Hori ezinezkoa da, ordea. Arabieraz, berriz, bada aditz bat, ‘ezabatu’, eta Hamasekoek entitate sionistari buruz ari direla aditz horixe erabiltzen dute, esanez egunen batean Israel mapatik ezabatuko dutela. Hedabideek diotelarik Hamasek Israel suntsitu nahi duela, arabieraz ‘ezabatu’ da hitza”.

hotz eta guztiz kontziente batek eragin du, eta biztanleria erabateko mendekotasun eta beharizan egoeran jarri.

Zergatik egin lezake hori inork?

Israeliek dio bere lurra defendatzearen ari dela, bidezko defentsan ari dela, horretarako eskubidea duela... Baina bidezko defentsaren eskubidea ezin da erabili defentsarik gabeko jendearen kontra. Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, eta beti hari buruz ari naiz denok elkar uler dezagun, zuk lurralde bat okupatzen baduzu, eta lurralde okupatu hartatik erasotzen bazaituzte, ezin duzu defentsa legitimoaren eskubidea aldarrikatu, zeren eta jende okupatu horrek egiten duenak beste izen bat du: erresistentzia. Beti eman diote izen hori historian. Orain ez, orain terrorismoa dela diote. Erresistentzia. Israeliek defentsa legitimoa aipatu –eta badakigu halakorik ez dela, gezurra dela–, eta Gazako Zerrenda entitate etsaitzat hartzen du. Zergatik, eta bertan Hamas izeneko indar politiko batek agintzen duelako, eta Israelen, AEBen eta Europar Batasunaren irudikari politikoak erakunde terroristatzat jo duelako Hamas.

Zer dakar horrek?

Inor terrorista izendatzen duzunean, pertsona izaera ukatzen diozu, giza kondizioa bera, eskubide guztiak... Eskubideak galtzen

Deskribatu ez ezik, baloratu

“Ez naiz nire filmetan ageri ohi. *Mapatik ezabatuak* honetan, momentu batean ageri naiz, bai. Ez nuen erabakia beroan hartu. Tira, beroan, kamerari begira hitz egitea izan zen: ‘Ez da posible! Kokoteraino nago ikusten ari naizena ikusten!’. Hotzean, berriz, irudi horiek filmean itsastea erabaki nuen. ‘Garbi gera dadila irudi hauek editoriala dutela; hau da, egileak halako eta halako pentsatzen duela’. Ez nuen nahi inork pentsa zezan errealitatea deskribatzen ari nintzena. Ez. Deskribatzen ez ezik, baloratzen ari nintzen, horretarako eskubidea dudalako. Hobe bai kazetariak egoerak baloratzen hasiko balira, adjektiboak jartzen! Deskribatzea ez da aski”.

dituelarik, zernahi egin liteke hura suntsitze-ko. Horixe egin du Israelek: giza izaera ukatu die palestinarrei oro har, eta Gazan bizi direnei bereziki. Denak balio du. Logistikoki, Israel estatu kolpea eragiten saiatu zen aire eraso bidez. Blokeoa lehenengo, aire eraso gero...

Zergatik ari da horrela Israel?

Arazoi bakarra dago. Israelen estatu proiektuak –estatu sionistaren proiektuak, alegialurra behar du, juduentzat beste inorentzat izango ez den lur eremua. Ahalik eta metro koadro kopuru handiena behar dute, al baita eta bertako jende kopuru txikienarekin; hau da, zenbat eta palestinar gutxiago bertan, hobe. Bultza eta bultza eta bultza –AEBetako Mendebalde Urrunean egin zuten bezala–, presio horrek Palestinako jendea Sinaiko desertura bidalaraztea du helburu.

Joan den abendu-urtarrilean Gazan ikusi zenuena irudietan bildu eta erakustekotan zara orain. Aurrerapena bidali didazu eta ikusi ahal izan dut. Agerikoa da “eraso selektiboan” selektibotasun eza.

Israelek dio Hamas beste inor ez duela bonbardatzen. Kito. Gezurra da. Israelek aipatzen duen “prezisioko eraso” ezinezkoa da Gazako Zerrendan. Egingarria, beharbada, eremuan. Baina ez Gazako Zerrendan. 360 kilometro koadro dira. Milioi bat eta zazpi-rehun mila pertsona bizi dira bertan. Lur planetan populazio dentsitate handiena duen herria da, Manhattanek baino handiagoa. Eman dezagun zilegi dela Israelen abiapuntua, zilegi dela polizia etxe bat bonbardatzea, nahiz eta ez izan, Nazioarteko Zuzenbideak argi eta garbi esaten du-eta polizia indar zibila dela, ez militarra... Goazen aurrera, hala

“Elefanteari tiroka”

“George Orwellen kontakizun baten izenburua da eta hari omenez jarria du titulu hori filmak. Gazan, zortzikote bateko kide nintzen: Ingalaterra, AEBak, Australia, Italia, Espainia, Greziakoak ginen han. Denok ere gauza bat dugu berdinean: Espainiako Gerra Zibil garaiko nazioarteko brigadak, eta George Orwelllek haietaz egin zuen narrazio laburra. Nahi genuke gu biltzen gaituen ISM [International Solidarity Movement] palestinentzat izan ledin Nazioarteko Brigadak Espainiarentzat izan zirena 1936an. Garaiak aldatu dira eta guk ez daramagu mauserrik, kamerak baizik... baina brigadista gara, harro asko. Bada garai hartako poema bat, Cesar Vallejorena, ‘Espainia erortzen bada...’ ari da. Gure kasuan, Palestina erortzen bada, atzetik gainerako guztia eroriko da...”.

ere: “Zilegi da polizia etxea bonbardatzea”. Ongi. Baina polizia etxe bat eraikin zibilez inguraturik dago beti: merkatua, haurtzaindegia, meskita, etxebizitzak, gasolindegia... Hortaz, Gaza bezalako leku dentsitate handiko bat bonbardatzen duzunean, ezgertatze-koak gertatzen dira. Bertako kaleek ez dute metro baten zabalera ere, eta errefuxiatuen kanpamentuetako eraikinak zeharo ezegonkorak dira, hormigoio eta zementu blokez eginda daude-eta. Eraikin bat bonbardatzen duzularik, etxe haren horma-teilatua metraila bihurtzen dira, 200 tonako metraila, eta perimetro zabalean dagoen guztia zirtzil eginda uzten dute. Hemen jendeak ezin hori ulertu! Alabaina, horrelaxe hil ziren zibil gehienak Gazan joan den abendu-urtarrilean. Bonbardatutako eraikinak metraila bihurtu zirelako eta ondoko etxeetan sartu. Irudietan erakusten da 500 tonako hormigoio blokea sartu zela etxe bateko teilatutik, eta bertan lotan ari ziren zazpi lagun hil zituela.

“Eraso selektiboa”. Ikusi dudana beste irudi bat: NBERen hornigai biltegia sugarretan.

Hamasen kontrako eraso selektiboak direla diote, polizi etxeen kontrako. Baina hiru aste horietan ikusi nuenak besterik dio, eta egin dudana dokumentalak horixe erakusten du, egoera, baina barrutik ikusia: NBERen eskolak bonbardatu zituzten, aise identifikatzeko moduko ikastetxeak: erakundearen ikurrindunak, koordinada jakinekoak –are, Israelgo armadari hamabost egun lehenago helarazitakoak–; meskitak bonbardatu zituzten: kultu lekuak, otoitzean ari zen jendez beteak; bonbardatu eta su eman zioten fosforo zuriz bertako ospitale handienari, hau da, Ilargi Erdi Gorriak eta Nazioarteko Gurutze Gorriaren egoitza nagusiari; su



AZKEN HITZA

Behi sakratua

“Neuk egina da telebistarako dokumentala, *Mapatik ezabatuak*, eta uste dut ona dela. Baina ez naiz objektiboa. Sudanez ariko banintz, edo Venezuelaz, filmak erraz egingo luke bidea. Baina ‘behi sakratuaz’ ari naizenez, Israeli buruz, asko zabalduko dela uste dut, baina bide alternatiboak ibiliz. Dena oker badoa, datorren urtean ikusiko dugu film luzea. Dena ondo badoa, aurten, gizarte eragileen laguntzaz”.

eman zioten, fosforo zuriz, NBEren elikagai biltegiari; Khabaliako errefuxiatu eremuko Alauda ospitalea, espainiar eta euskal kolaborazioak zuzenean ordaindu duena, betebetean bonbardatu zuten, irudietan erakutsi dudanez; Ilargi Erdi Gorriaren lau anbulantzia zartatu zituzten, zaurituak garraiatzen zituzten bitartean; frankotiratzailleek tiroka eraso zioten etxetik irten eta ihesi hasi zen jendeari; auzoetako ur-hoditeria suntsitu zuten buldozerren bidez, argindar-zutoinak bota... Gazako itsas-portua txikitu zuten, zenbait hotel...

Eta gu hemen, ulertu ezinik...

Bada, ulertu behar dugu Israelek bizi-espazioa definitua duela, eta bizi-espazio hori ez dela oihanaren legea besterik, legerik, araurik, eskubiderik ez dagoen herrialdea. Nazioarteko komunitateak, berriz, “erreserba natural babestua” izendatu du Israelen oihana, Nazioarteko Zuzenbidearen putzu beltza. Israelek nahi duena egin lezake, ez da eta ondoriorik izango.

Ondoriorik ez.

Ez. Adibidez, Venezuelak halako enpresa bat nazionalizatzen badu, Washingtoneko Munduko Bankuaren Enpresetako Ekonomi Eztatidarako erakundeak Venezuela zigortuko du; aldiz, Israelek NBEren hornigai biltegia zartatu, eta NBEk ez du bilkura bat deitzeko gaitasunik, are gutxiago Israelen kontrako zigor bat proposatzeko. Espainiak Khabaliako errefuxiatu eremuko Alauda ospitalea eraiki, eta Israelek txikitzen

badu, Espainiako Gobernuak ez du Zuzenbide Kontsularreko unibertsitateko eskuliburuan ikasi genuena ere egiten: Israelgo enbaxadorea kontsultara deitu, alegia. Eta kontsultara deitzea da herri batek har leza-keen neurri guztien artean bigunena.

Nazioartea isilik.

Nazioartea? Hara, Bartzelona plaza zen Gazako Zerrendan zegoen eremu publiko urbanizatu bakarra: Bartzelonako hiriak Gazakoari egindako 380.000 euroko dohaintza zen. Urtarrileko erasoaren azken egunean, sartu bertan israeldarrak sei Merkava tanketan eta zeharo suntsitu zuten. Bartzelonako gizarte eragileak galdezka ari zaizkio Bartzelonako Udalari: “Eta, zer egin asmo duzu dohaintzari buruz?”. Eta Bartzelonako Udalak: “Berregin!”. Hortaz, nazioarteko komunitatea –dela Bartzelonako Udala, dela Eusko Jaurlaritzako Kooperazio Zuzendaritza, Espainiako Nazioarte Kooperaziorako Agentzia, edo Europar Batasunaren Giza Laguntzarako Agentzia...–, finean, Israelgo armadaren okupazio militarren kostu ekonomikoa azpikontratatzan duten agentzia bihurtzen ari dira: jaten ematen diote jende okupatuari, hezkuntza, hornigaiak ematen... eta Israelgo armadak hori dena hankaz gora jartzen duenean, ezikusia egin eta beste txeke bat sinatzen dute: zure eta nire zergetatik dator txeke hori. Horri konplizitatea esaten zaio. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.